

OSTADAR

3



Elkarrekin
haziz





Hautsa harrotu, arropak bildu eta leihoak ix-tear gaude. Denboraldiko azken egunetan gaude eta jada 31 dira. Hogeita hamaika urte lanean, hamaika buruhauste, momentu zoriontsu eta gazi gozoak. Hau da dagoena.

Elkarte altruista honek, galtzeko bidean dagoen espeziea, herrirako eta herriarekin lana egiten du. Egiten dugun guztia kirolaren alde egiten dugu, gure seme-alabek, lagunek... kirola egin dezaten. Badakigu hartzen ditugun erabakiak beti ez direla zuzenak edo onenak izaten, tarteka hanka sartzen dugula, beti ez ditugula gauzak guztion gustura egiten. Baina, pentsatu nahi dugu ere, hogeita hamaika urte herrian lanean aritu bagara herritarren babesa dugulako dela. Zerbait ondo egiten ari garenen seinale.

Ostadarren babesean zortzi kirol modalitate desberdin ari dira urtean zehar lanean. Eta ez dira garai onenak. Egoera ekonomikoak ez du batere laguntzen eta kirol elkarteok egoerari eusten diogu. Horregatik, herriko kirolak ulermen gehiago behar duela uste dugu.

Kirol-instalazio gehiago eta hobeagoak behar ditugu. Kirol ataletan gero eta kirolari gehiago daude, baina instalazioek ez dute bilakaera bera eduki. Futbolak eta errugbiak eszenatokia partekatzen dute. Ez dira denak sartzen. Jokoko zelaiaren aldaketak errugbia sustatu du eta pixkanaka taldeak hazten ari dira. Eta futbolari kopurua ez da gutxitu. Herriko jendeak kirola baldintza onetan egin nahi du. Badakigu Udalak kirolaren gaineko azterketa bat egiteko asmoa duela. Baina, azterketa hori ez dadila hausnarketan geratu. Horretarako, herriko kirol arduradunak eta teknikariak gonbidatzen ditugu beste herrietara joan daitezen beste herrietan zer dagoen ikusteko. Kuestioa kirola etorkizuneko inbertsioa bezala ikustea da eta ez gastua bezala.



KIROLARI ONENA



Enara Fernandez eskiatzaile gaztea sarituko dugu gaurkoan. Hamabi urte besterik ez ditu eta Espainiako txapelduna da. Duela hiru urte itsumena eta ikusmen urria duten pertsonen zuzendutako eskian hasi zen eta benetan eskiatzaile aparta da. Lortu dituen garaipenen zerrenda oso luzea da. Itsua izan arren, ez dio aldapei beldurrik, Iraitz Etxarri gidariaren laguntzaz egiten ditu jaitsierak. "Iraitzen begiak nire begiak dira", dio Enarak.

Egun hauetan jakin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizuneko kirolaria izendatu duela. Zorionak bi lasarteorietarrei.



Argazkia: Txintxarri

AUZOLAN SARIA

Aurten Ostadarrek Islada Ezkutuak taldea omentzen du Auzolan Saiarekin. Herriko talde hau Lasarte-Orian 36ko gerran gertaturikoak argitara ekartzeko sortu da duela urte pare bat. Mikel Amenabar Islada Ezkutuak taldeko kideak Txintxarri azaldu bezala, 1936an eta ondorengo urteetan "gure herrian ezkutuak izan ziren gertaerak ezagutzera eman nahi ditugu". Horretarako, inguruko herrietako artxibategietatik informazioa lortzeaz gain, herritarren parte-hartzea eskatu dute testigantzak eta argazkiak biltzeko. Ea denen artean, elkarlanean, gure herriko oroimen historikoa berreraikitzen dugun.



Argazkia: Islada Ezkutuak

Después de muchos rumores y comentarios, este año hemos podido disfrutar de una larga temporada que el próximo día 14 de Junio finalizara en lo que esperemos sea una final en la que prime la deportividad y el buen juego que a lo largo del año han mostrado cada uno de los equipos, que ha hecho posible este torneo.

Esta temporada se ha disputado la 31 edición del torneo. Tras un comienzo incierto debido a las dudas existentes sobre la continuidad del torneo, trece equipos han disputado el torneo donde hasta la última jornada no se han definido las plazas a disputar los playoff. Este año se caracteriza por ser el año en el que menos equipos han disputado la liga, pero donde mayor número de partidos se han jugado por equipo. Ese ha sido el objetivo principal marcado por la organización, el que la gente pudiera disfrutar del mayor número de encuentros posible y en el mejor ambiente posible, recuperando lo que debe ser un torneo de pueblo sin olvidar el espíritu competitivo.

Todavía no se sabe que equipos disputarán la final, pero lo más importante es que, otro año más, con la colaboración de todos es posible este torneo, ese es el mayor logro por parte de cada uno de los equipos. Desde estas líneas se quiere dar las gracias a los colaboradores que arbitran cada semana, a todos los miembros que han formado parte de este torneo y que ahora en un segundo plano siguen colaborando, pero también a los equipos que no sin quejas, las cuales se agradecen pues posibilitan la mejora continua del torneo, disputan con deportividad jornada a jornada un torneo que forma parte ya de la historia de Lasarte-Oria.



TXIRRINDU- LARITZA TENISA



PORRA

Giroko Porra aldizkaria argitaratzen den as-
teburu honetan amaituko da. Beraz, gutxi fal-
ta da irabazleen izenak ezagutzeko. Sariak
hurrengo astean, ekainaren 6an, ostiralean,
19:00etan puntu gehien lortzen duen taber-
nan banatuko ditugu.

Ostadarreko zikloturistak igandero, martxotik
urrira, Gipuzkoako errepideetara ateratzen dira
kilometroak egitera. Aurtengo denboraldian
guztira 2.451 kilometro egingo dituzte. Ez da
gutxi!

Gipuzkoako errepide eta parajeak ezagutu
nahi badituzue Osatadarreko zikloturista talde-
txoarekin aukera paregabea daukazue. Beraz,
badakizue, igandero anima zaitezte.

FECHA	SALIDA A:	KMS	FECHA	SALIDA A:	KMS
02-mar	ITSASONDO	64	06-jul	GABIRIA	96
09-mar	ZUMAIA	60	13-jul	NUARBE	100
16-mar	AMEZKETA	60	20-jul	LASTUR	90
23-mar	IRAETA	66	27-jul	GAINTZA	80
30-mar	ZALDIBIA	75	07-sep	ARTADI	62
06-abr	ALTO ITZIAR	80	14-sep	BEDAIO	68
13-abr	GUADALUPE JAIZKIBEL	74	21-sep	ARKAKA (ZALDIBIA)	82
20-abr	MANDUBIA	96	28-sep	BETELU	76
27-abr	DEBA	90	05-oct	SAN MARCIAL	68
04-may	VUELTA REGIL	88	12-oct	ELKANO - IRAETA	72
11-may	ZIBURU	85	19-oct	BIANDITZ	62
18-may	GOIZUETA LEITZA	95	26-oct	SAN MARCOS	50
25-may	IBARDIN	100			
01-jun	LIZARRUSTI	100		Total	2451
08-jun	ELGOIBAR	120		Hora salida	Mes
15-jun	ZUMARRAGA	100		Marzo	9:00
22-jun	ONDARROA	120		Abril-Septiembre-Octubre	8:30
29-jun	ALTZAGARATE	72		Resto de meses	8:00

Marchas Gipuzkoa 2014		ZIKLOTURISMOA
Fecha	Prueba	
30-mar	Deba	 Irteeren egutegia 2014
06-abr	Ordizia	
13-abr	Donostia - Baiona - Donostia	
27-abr	Aspanogi Bergara	
11-may	Billabona	
18-may	Zarautz - Gernika - Zarautz	
01-jun	Bidasoako Bira - Patxi Vila	
08-jun	Vuelta Gipuzkoa	
29-jun	Olano Tolosa	
03-ago	Irun - Marcha J.M. Garate	
13-sep	Klasika Legazpi	
28-sep	Bizi ta batuz Urretxu	
	Otras pruebas	
16-mar	Bilbao - Bilbao	
21-jun	La Quebrantahuesos	
29-jun	La Miguel Indurain	

Tenis Eskola

Aurtengo denboraldia bukatzeaz dago eta kon-
tentu egoteko arrazoiak ditugula esan dezake-
gu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko
hogeita hamabost tenislari ilusioz eta seriota-
sunez ahalegindu direlako tenisaren sekretuak
beregantzen; bestetik, ikasturte honetan lortu
ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako.

Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz,
ekainean denboraldiari amaiera emango dio-
gu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide
guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotze-
ko. Gogoratu, lehen urratsak eman ala sakon-
du nahi duenarentzat Tenis Eskolako atea
zabalik daudela!



BOLOAK ETA TOKA



Argazkia: Txintxarri

Euskadiko Bolo eta Toka Txapelketa ekai- naren 7an Lasarte-Orian

Aurtengoa oso urte berezia da Ostadarreko
Bolo eta Tokako ataleko kirolarientzat. Aurten
San Pedro jaietako tirada eta irailean anto-
latzen duten Santi-Martin Memorialaz gain,
EUSKADIKO BOLO ETA TOKA TXAPELKE-
TA ospatuko dute ekainaren 7an, goizez, Mi-
txelingo bolatokian.

Talde honetako bolariak urtarrean hasi ziren
lanean Euskadiko Txapelketa antolatze-
ko eta dena ondo atera dadin. Txapelketa hone-
tara Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 25 bolari
onenak etorriko dira, hau da, Euskadiko 75
bolari onenek indarrak neurtuko dituzte gure
herriko bolatokian. Onenak Txapela eraman
dezala!

Egun berean, arratsaldean, Okendo plazan
bolatoki mugikor bat jarriko dute. Bertan he-
rritar orok parte har dezake. Ekimen honen
helburua boloak eta toka herritarrei gertura-
tzea eta herritar guztiei bi kirol hauekin goza
dezaten aukera ematea da.

Lasarteoriatar guztiak gonbidatuta zaude-
te Euskadiko Txapelketa ikustera eta baita
arratsaldeko bolatoki mugikorrean parte har-
tzera ere. Ostadarrek Udalari eskertzen dio
kirol ekimen berezi hau antolatze-ko eskain-
tzen ari den laguntza.

Terminar el año en Buruntza

El 31 de diciembre organizamos conjunta-
mente con Ttakun con gran éxito por 2º año
consecutivo la despedida del año en el ater-
pe de San Roke en Buruntza. Zarautz de
nuevo fue el encargado de animarnos con su
eskusoinua. Este año también preparamos
pinchos de txistorra, queso, vino y caldo para
todos los que acudieron a la cita. Nuestra in-
tención es seguir organizando todos los 31 de
diciembre esta simpática forma de despedir
el año. Por ello, animamos a los mendizales
y no mendizales lasarte-oriataras, a pesar
de estar lejana la fecha todavía, a que hagan



la mañanera al aterpe de
San Roke.

Un año más, destacar la
travesía que solemos or-
ganizar cada año con un
recorrido distinto. Este año
salimos de Deba y llega-
mos a Lasarte-Oria (13,5
km) en 8 horas, en la que
participamos 25 integra-
ntes de la sección. Y en
octubre colaboramos, una
vez más, con el polidepor-
tivo en la clásica marcha
de Buruntzaldea.

También hemos partici-
pado en el ciclo de pro-
yecciones que organiza
Ttakun, con un par de audiovisuales sobre
Nepal y Corsica. Muchos de nuestros socios
han visitado macizos montañosos de Picos,
Pirineos, Alpes, Atlas... Pero eso es otra his-
toria.





SASKI BALOIA

Saskibaloiko neskak Gipuzkoako txapeldunak

Denboraldi bikaina Ostadarreko saskibaloia ataleko neskek burutu dutena. Dakizuenetz iaz saskiko atala kadeteen taldearekin hasi ginen. Hauek parte hartze mailan hasi ziren jokatzeko eta urte bakar batean Errendimenduko mailara igotzea lortu zuten. Aurten, kadete taldea ez ezik, beste bigarren talde bat sortzea lortu dugu, parte hartzeko juniorra, biak ere emakumezkoak. Taldeak aurpegi berri ugariarekin osatu dira, gogoia ere nabarmena izan da eta garrantzitsua, bakoitzak jarri dion ilusia.

Aurten hasi gara, lehengo urteko proiektu berri honi merezi duen itxura ematen eta lortutako emaitzak direla-eta, bide onean goazela uste dugu. Alde batetik, urtean zehar momentu gogorak bizi izan ditugu eta, ala eta guztiz ere zailtasun guzti horiek gainditzeko gai izan gara. Bestetik, momentu oso onak ere eduki ditugu, baina aipagarriena Kadetek lortutakoa izan da, Gipuzkoako Errendimenduko txapeldunak izatea.



Denboraldia ondo amaitzeaz gain, Lasarte-Oriako zaletuei joan den urtean eskaini ez geniena ematen, larunbatero saskiarekin gozatzen eta ditugun koloreei leialak izaten



saiatu gara. Honekin batera atsedena hartzeko momentua dator, baina lo hartu gabe hurrengo urteko ekintza berriak laster gainean dauzkagu eta.

3x3 Txapelketa

Urtarrileko lehen larunbatean egun osoko jardunaldia bizi izan genuen saskibaloiko 3x3 txapelketan. Lehen aldia da antolatzen dugula horrelako txapelketa bat eta, gure sorpresarako, espero ez genuen arrakasta izan zuen.

Saskibaloiaz gozatzeko asmoz herritar ugari bildu zen Mitxelingo frontoian, txikiak, gazteak eta helduak, guztira 57 talde. Azpeitia, Donostia eta Lesakako taldeak etorri zitzaizkigun. Goizetik hasi eta arratsaldera arte partida ugari ikusteko aukera izan zuten zaletu eta senideek. Izugarria harmailatan zegoen jendetza eta giroa. Honek ere asko lagundu zuen, jokalariek babesa, berotasuna eta animoak uneoro izan baitzuten. Helburua neska mutil gazteen artean kirola sustatzea izan zen, eta baita lagunarteko giroa bultzatzea ere. Lortu genuelakoan gaude. Egun paregabea pasatzeko aukera eskaini genuen eta berriz ere eskaintzeko asmoa dugu. Beraz, adi!



Saskibaloia Eskola

Garai batean, Ostadarrek saskibaloiko atala izan zuen, baina arrazoi desberdinak medio, atal hura bertan behera geratu zen. Iaz, berriz, saskiko atalarekin hasi ginen, baina oraingoan beste planteamendu batekin. Aurreko esperientziak gauzak nola ez diren egin behar erakutsi baitzigun.

Herrian neskentzako, futbolaz gain, taldeko kirol eskaintzarik ez dago, ikastetxeetatik at. Horregatik, iaz, saskibaloiko nesken kadete talde batekin hasi ginen. Aurten, talde hori mantentzeaz gain, bigarren bat ateratzea lortu dugu, juniorra. Gabonetan antolatu genuen 3x3 Txapelketan eta Aste Santuan egin ditugun saioekin lortutako emaitzekin kontentut gaude. Lanean daramatzagun bi denboraldi hauetan herrian saskibaloiarekiko interesa

badagoela sumatu dugu. Beraz, beste urrats bat ematen auzartuko gara, Saskibaloia Eskola sortu nahi dugu. Zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrentzako Eskola.

Ostadar S.K.T.-k duen helburu nagusia haur eta gazteei kirola egiteko aukera eskaintzea da eta kirolaren bitartez balioak transmititzea. Kasu honetan, saskibaloia txikitatik ezagutzea, kirol honetan txikitatik trebatzea, saskibaloiarekin bitartez eta emaitzen gainetik, neska-mutilen gaitasun fisiko eta intelektualak garatu nahi ditu. Hau guztia aurrera atera ahal izateko entrenatzaile, begirale eta hezitzaile taldea derrigorrezkoa da. Lan talde honek formazio etengabea izatea garrantzitsua dela iruditzen zaigu - hori sustatzen ari gara, baina oraindik garrantzitsuago pertsona bezala garatzea.



KROSA

Jakin dezazuen aurten ere krosa antolatuko dugula, beti bezala, urriko azken igandean. Egun erreferente bihurtu da askorentzat eta egia da goizetik gauera festa giroa dagoela kaleetan. Horrek motibatzen gaitu beste edizio berri bat antolatzeko. Baina, urterik urte zailagoa da antolatzea. Asteburu berean sei lasterketa gehiago daude, sponsorrak eta publizitatea lortzea odisea bat bihurtzen ari da... Dena den, beste edizio batekin ausartuko gara.

Beraz, ez ahaztu zita, urriaren 26an, denak elkar ikusiko dugu.



RUGBY TALDEA

Desde 1984, en ocasiones de forma intermitente, el rugby ha estado presente en Lasarte-Oria a través de los Beltzak, con varios jugadores participando en distintas ligas y equipos de la provincia, Iparralde o resto del Estado. Pero no miremos hacia atrás si no hacía el futuro. En estos últimos años, con la creación de Beltzak-Ostadar Rugby Eskola, el auge de nuestro deporte en la localidad ha sido muy considerable y creemos que con una gran acogida por parte de los chavales que viernes y domingos han estado formándose en Michelin, llegando a tener equipos competitivos en todas las categorías, Benjamines, Alevines e Infantil escolar, aunque en esta última fase, arropados por nuestro club hermano el Zarautz Rugby Taldea.

En el apartado de rugby federado, creemos que estamos haciendo las cosas bien, ya que estamos viendo progresión en nuestros jugadores. En la categoría Sub 16 hemos observado una gran progresión en el juego y entrega del equipo. Estamos convencidos de que en la próxima temporada pondrán el listón muy alto. El cadete Sub 18 ha realizado una gran temporada siendo líderes del 2º grupo de la fase final durante mucho tiempo y 3 de ellos han subido, llegando a jugar en algunos partidos de la División de Honor B de rugby nacional. Además, nuestros chavales han sido convocados por las selecciones en todas las categorías. Contando siempre con ellos y agradeciendo el

apoyo y la implicación de los Beltzak veteranos en la elaboración del "tercer tiempo" entre otras facetas, así como con la aportación de los patrocinadores ya que sin ellos, todo esto no hubiera sido posible. Agradeciendo a Ostadar su disposición y acogida dentro de esta gran familia que unifica el deporte en Lasarte-Oria, a los padres por haber depositado su confianza en nosotros, a la DYA por el apoyo sanitario durante nuestros partidos, así como al Ayuntamiento de Lasarte-Oria, y al Zarautz Rugby Taldea por su colaboración en todas nuestras actividades.

Para finalizar, seguiremos llevando a cabo distintos actos de conmemoración del 30 Aniversario, como los hasta ahora realizados al traer un partido de liga femenino con las chicas del Hernani, o el asesoramiento técnico a través de grandes figuras del rugby internacional.

Siempre dispuestos a recibir a todo aquel chaval que quiera sentir la satisfacción de conocer este deporte. !!!Bultza Beltzak!!!



FUTBOL ESKOLA



2014-2015 Denboraldirako izen ematea
ekainaren 9tik 20ra
18:00etatik 20:00etara
Ostadarreko bulegoan

FUTBOLA



Alebin B



Alebin A



Kadete A



Liga vasca



Infantil B



Infantil A



Lehenengo Jubenila



Ohorezko Jubenila



Infantil txiki



Kadete B



Ohorezko dibisioa



Nesken erregionala

EGITARAUA

2014 - VI - 14 udal kiroldegian

17:00 KONTSOLAZIO FINALA semifinaletako irabazleen artean jokatuko dute.

17:45 JALGUNE - TALDE MIXTOA

18:30 FINALA

19:30 SARI BANAKETA



- GES ASEGURUAK
- LARRAÑAGA HARATEGIA
- ZAPA REPARACIONES DE CALZADO
- LAGUNAK ELEKTRIZITATEA
- BALERDI HARATEGIA
- REPARACIONES ARRUPPE
- COPI LASARTE
- DISCO BURGER TATI'S
- LUISCAR AUTOBUSAK

- ETXEZARRETA HARATEGIA
- KIMA
- I.URRUZOLA
- HIRU ALDETA
- M.BERASATEGI KAFEAK
- ASESORIA BIRMINGHAM
- ABEND
- INSAUSTI
- AVENIDA

Jarraitu ezazu zure porra gure web-gunean
www.ostadarskt.org



OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK
eskerrak eman nahi dizkie Grafikas ORVYri,
TXINTXARRI aldizkariari eta TXEMA VALLESi
eskainitako laguntzagatik.